

Consuelo Agirreurreta Lamariano
Antzuola, Gipuzkoa (1914-2000)

Aurkibidea

Biografia

Antzuolako Ondarra plazako Bazterretxe etxekoa. Erlijio, erromeria eta bestelako antzinako ohiturei buruzko kontu ugari kontatu zituen.

Zintak

ANT-007

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arbulu, Maria Jesus
- **Data:**
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Antzinako ohitura erlijiosoak; sineskerak

- **Erref:** ANT-007/019
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Antzinako ohiturak; sineskerak. Bidegurutzeak. Hileta-elizkizunak kategoria desberdinetakoak. Meza ondoren jan-edana.</p>

Transkripzioa

- Ta entierruak eta gero ez zan eitten gero zeozer, hola, afari edo...
- Bai, bazkaixa, bazkaixa emoten zan orduan. Entierrora-ta orduan etortzen zian eguardixan. Hamarretan-ta eitten zian.
- A! Entierruak goizetik eitten zien...
- Entierruak egoten zian klasiak, e! Primeria ta segundia.
- A! Bai? Esistitzen zeban? Kategorixak esistitzen zeban, e?
- Bai. Primeria eingo zan... e... bai, segundia bederatziretan edo ta primeria hamarretan eitten zan.
- Ta ze diferetia eukitzen zeban hola...?
- Ba, [abade...] elizkizun zera ta organua ta, ba, bere zerak eukitzen zittuan.
- [...]
- Bai.
- Eta primerakua edo segundakua eittia zeren arabera zeuan?
- E?
- Dirua...?
- Preziuak eukiko zeban diferentzia hori, bai. Klaro, abadiak be ekartzen zian... Orduan [gorputz presenteko] mezak izeten zian, osea, entierroko denboran altara danetan mezak emoten abadiak.
- A! Batera?
- Bai. Lehen hori izeten zan. Danak batera, e?
- Kategorixa...
- Gurian amandrianian, ez dakit [...], ez dakit zeintzuk etorri zian; Lazkaoti edo, ez dakit nundik etorri zian. Danak batera han, altarak badare, ba?
- Bai, aldameneko...
- Aldamenetako haretan harek mezia emoten zeben. Gero, mezia etaratzera be sakristeixara juaten zan orduan.
- Hori beti, ohitura hori beti egon izen da, mezia etaratze hori?
- Nere akorduan bai. Bai. Hori... Bai, nere akorduan bai. Bai, zeatik gurien aittajunak eta ez dakit, baiña aittana bai, behintzet, eta amana be bai ta [...]. Baiña gero orduan etara biher izeten zan, hola, [...] bat bezela altaran. Ta entierrua zanian [edo bestetan], [entierrua] ta "Bai, jun biharko da, mezia be etarata dauka ta". Ta egoten zan bat [...] tragorako. Gero tragua emoten zan meza-ostian.
- Hori danei emoten jakuen edo kantoriei edo bakarrik, tragua?
- Jentiai be bai.
- Jentiai be bai...
- Jentiai be bai. [Mezan]: "Tragua izango da hartu-emona daukanandako tragua izango da. Hartu-emona daukanandako tragua izango da".
- [Bueno, erona]...

- Bai, halako tokittan edo[...]. Ba, intxaurrek eta ogixa ta gaztaia-ta emoten zeben.
- [...]?
- Meza-tokixan, mezia emon dan tokixan. [...]
- Normalian tabernetan eitten zan?
- Tabernetan. Bai, tragua. Ta gero kanpotik etortzen zanai, ba, [bazkai]...
- Ta etxian eitten zan zeozer?
- Ba, nahi zeban... bazkaixa kanpotik etorritakuei ta...

2. Ondra-jana hileta-elizkizuna amaitu ondoren

- **Erref:** ANT-007/020
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:03:12. **Bukatu:** 00:04:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Ondra-jana hileta-elizkizunaren ostean.</p>

3. Ohitura erlijioso zaharrak: hilarriak; gurutze-bideak

- **Erref:** ANT-007/021
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:06:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Ohitura zaharrak. Manta hilarrian. Gurutze-bideak.</p>

4. Abadea elizakoak eramatera "biatikua"rekin batera

- **Erref:** ANT-007/022
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Elizakoak eramatera nor joaten zen. "Biatikua".</p>

5. Baserrietako ezkontzak nolakoak izaten ziren

- **Erref:** ANT-007/023
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Ezkontzak nolakoak izaten ziren. Arriorik ez zuen ikusi; baina kontu asko entzun zituen. Maiorazgoa.

6. Senideek "prestatutako" ezkontzak

- **Erref:** ANT-007/024
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Ezkontzak sarritan "gertatutakoak" izaten ziren. Neska-laguntzea.

7. Deskargako erromeria; neskak eta kongregazioa

- **Erref:** ANT-007/026
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:12:45. **Bukatu:** 00:15:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Kongregaziotik kanpora botatzen zituzten dantza egiten zuten neskak. Estandartea. Deskargako erromeriara oinez.</p>

8. Neskak kalabaza eman eta mutila bertsoan ekin zion

- **Erref:** ANT-007/027
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:15:05. **Bukatu:** 00:16:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Kantapaperak. Neskak kalabaza eman eta mutilak bertsoak atera zituenekoa.</p>

9. Kanpai-izenak; kanpai hotsak

- **Erref:** ANT-007/034

- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:27:14. **Bukatu:** 00:28:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>Kanpai klaseak; izenak.</p>

10. Kanpai hotsa uda garaian

- **Erref:** ANT-007/035
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:30:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak
- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Kanpai klaseak; izenak. Maiatzetik irailera, desberdin jotzen zituzten. Herriko jaiak. Musika, dantza.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com